

# ¡BETI MUTILL ZAR!

---

*Mantoni, orain, nola dan biyok  
bakarrik gauden orduba  
gauza bat neri zuk entzutia  
ez da noski pekatuba.  
Bai, ara....., izango da bost urte  
edo seyen inguruba  
zureganako amorijuaz  
nabillela zoratuba .  
Aldi frankotan au esateko  
egon naiz len tentatuba  
bañan..... Jainbeste nai dizut eta  
ain det jeniyo lotuba!  
Barkatu baldin zuregan ongi  
ez banator bireztuba  
t'izket onen diñ ezpada nere  
mingaiñ latz erdi mutuba;  
bañan aurrera ezin liteke  
izan geigo luzatuba  
tsill egoitzak gaur arteraño  
eman diran irperruiba.  
Sei urte ontan ala zu gabe  
daukatan bizimoduba  
neretzat illun, oso beltza da,  
gauza triste bat munduba.  
¡Arren!, ekatzu itz erdi batez  
sendagai dan ukenduba;*

*laister legoke, laister pen oien  
 beazun dena kenduba  
 baldin zuk artu nai bazenduke  
 jerregiñ goitik sortuba!  
 biotz nerian zuretzat dagon  
 amoriyozko tronuba.  
 Ez arki lotzaz, esan Man̄toni,  
 daukazkun pentsamentuba,  
 ez egon bada orren seriyo,  
 ez jechi begiratuba;  
 farcho batekin agertu zazu  
 uztai gorriz apainduba  
 ortz errenkada fiñ bakoitzaren  
 koska polit elurtuba.  
 ¡Mugi dezazu «bai» esateko  
 mugitu, nere aingeruba,  
 españen ordez aboan dezun  
 anpolai erdibituba.  
 ¡Tira, sai nago; entzun maitia  
 gašo baten erreguba.  
 kupitu zaitez edo bestela  
 ilko det nere buruba.  
 ¡Dudan alzaude? Baña zergatik  
 Man̄toni bedeinkatuba.....  
 —¡Ausen da mutil kiopejariyo,  
 auſen da mutil kaikuba!*

EMETERIO ARRESE

